



Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2017ko ekainaren 12tik ekainaren 16ra

➤ **INGURU MAKROA:**


- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

➤ **GURE IKUSPEGIA**

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROPA: KPI EUROGUNEA



Datuaren analisisia

uroguneko urte arteko inflazio-tasa % 1,4koa izan zen maiatzean, apirilean (% 1,9) baino ortzentaje-puntu erdi gutxiago, Eurostatek argitaratutako datuaren bigarren kalkuluaren rabela. Energiaren prezioa urte arteko % 4,5 igo zen maiatzean, iragan hileko % 7,6aren azpitik. Ilikagai freskoak, bestalde, % 1,6 garestitu ziren, apirilko urte arteko igoera baino sei hamarren utxiago. Zerbitzuak urte arteko % 1,3 igo ziren, aurreko hileko % 1,8aren aurrean, eta ondasun industrialak % 0,3an mantendu ziren.

Adierazlearen azalpena

Plaza hileroko prestatzen du Eurostat/Europako Banku Zentralak. Europako etxeek kontsumitzen dituzten oinarriko zerbitzu eta ondasunen multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta atez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROPA: ERRESUMA BATUKO KPI eta BZ



Datuaren analisisia

lariatzen, Britainia Handiko inflazioa duela lau urteko mailarik altuenera igo zen ustekabeen. atua % 2,9ra igo zen iaztik, apirileko irakurketari (% 2,7) aldaketarik gabe eutsiko ziola dierazten zuten iragarpenak gaindituz. Apirilekoa urteko inflazio-tasarik altuena izan zen 2013ko kainetik. Gainera, Ingalaterrako Bankuak bilera egin zuen. Erakunde britainiarrak ez zuen idaketarik egin bere diru-politikan. Nolanahi ere, bilera horrekin jakin genuen Batzordeko kideen rtean desadostasun handiak daudela; izan ere, 5 kidek estrategia kontinuitaren alde egin jten, eta gainerako hirurek diru-politika gogortzearen alde bozkatu zuten.

Adierazlearen azalpena

Pla hileroko prestatzen da. Etxeek kontsumitzen dituzten oinarrizko zerbitzu eta ondasun ultzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen ena. Ingalaterrako Bankua (BoE) Erresuma Batuko banku zentrala da. Herrialdearen diru-olitika zehazteaz arduratzen da, bere Diru Politikako Batzordearen bidez. Erresuma Batuko iobernuaren Banku Zentrala da, eta, besteak beste, libera esterlina jaulkitzea eta bere rkulazioa kontrolatzea dira bere eginkizun nagusiak.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: FEDen BILERA

FEDen aurreikuspenen eguneratzea

	2017		2018		2019	
	Gaur egun	Aurrekoa	Gaur egun	Aurrekoa	Gaur egun	Aurrekoa
Hazkundera	% 2,20	% 2,10	% 2,10	% 2,10	% 1,90	% 1,90
Inflazioa	% 1,60	% 1,90	% 2	% 2	% 2	% 2

Datuaren analisia


ste horretan, FEDek bilera egin zuen. Erakundeak 25 op igo zituen tasak, aurreikusita zegoen oduan, eta etxeko ekonomiaren balorazioak positiboa izaten jarraitu zuen. 2017rako hazkunde arreikuspenak gorantz berrikusi ziren, eta bere horretan mantendu ziren 2018 eta 2019rako arreikuspenak. 2017rako inflazio arreikuspenak, aldiz, beherantz berrikusi ziren, eta bere horretan mantendu ziren 2018 eta 2019rako. Halaber, tasen arreikuspenei eutsi zien; hau da, beste oera bat aurten eta hiru 2018 eta 2019rako. Horrez gain, balantzea normalizatzeko planari buruzko ehetasunak ezagutarazi zituen: aurten jarriko du martxan eta erosketa-programa zaharren aginpean erositako bonuen mugaeguneratzeak berrinbertitzeari utziko dio.

Adierazlearen azalpena

ederal Reserve System (FED) Estatu Batuetako banku-sistema zentrala da. Herrialdeko diru-olitikako erabakiak hartzea, banku-erakundeak ikuskatu eta arautzea, finantza-sistemaren konkortasuna mantentzea eta gordailu-erakundeei, Estatu Batuetako gobernuari eta atzerriko akunde ofizialei finantza-zerbitzuak eskaintzea dira bere egitekoak. Bere diru-politikaren bitartez, irpegu erabatekoa, prezioen eraginkortasuna (inflazioa eta deflazioaren prebentzioa barne) eta ote luzean interes-tasak moderatzea dira lortu nahi dituen helburuak.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEK: KPI



Datuaren analisia

Plazaren arteko % 1,9ra jaitsi zen maitatzean, apirilko % 2,2aren azpitik, baita duela lau hilabeteko % 2,7aren azpitik ere; azken bost urteetako altuena.

Plazaren datuei begiratuta, prezioek % 0,1 egin zuten behera. Prezioen jaitsiera, energiaren prezioaren urreztatzearen ondorioz nagusiki, % 2,7koa izan zen maitatzean. Gasolina ere % 6,4raino jaitsi zen.

Adierazlearen azalpena

Plaza hileroko prestatzen du Lan sailak. Amerikako etxeek kontsumitzen dituzten oinarrizko zerbitzuak ondasun multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin zuzentzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa erakusten du.

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreikus.
06/19	Japonia	Balantza komertziala	¥43.3b
06/19	Japonia	Urte arteko esportazioak	% 16.0
06/19	Japonia	Urte arteko inportazioak	% 14.5
06/20	Alemania	Urte arteko ekoizpenaren prezioen indizea	% 2.9
06/20	Espainia	Balantza komertziala	--
06/21	Estatu Batuak	MBA Hipoteken eskaria	--
06/21	Estatu Batuak	Bigarren eskuko etxebizitzaren salmenta	5.55m
06/21	Estatu Batuak	Hileko etxebizitzaren salmenta	-% 0.4
06/22	Frantzia	Enpresen konfiantza	--
06/22	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	--
06/22	Eurogunea	Kontsumitzailearen konfiantza	-3.0
06/22	Estatu Batuak	Fed-en fab. jarduera Kansas Cityn	--
06/23	Japonia	PMI Nikkei fab Japonia	--
06/23	Frantzia	Urte arteko BPGd	--
06/23	Frantzia	Frantziako Markit fabrikazioaren PMIa	--
06/23	Frantzia	Markit Frantzia Zerbitzuak PMI	--
06/23	Frantzia	Markit PMI Composite Frantzia	--
06/23	Alemania	Alemaniko Markit/BME fabrikazioaren PMIa	59.0
06/23	Alemania	Markit Alemania Zerbitzuak PMI	55.4
06/23	Alemania	Markit/BME Alemania Composite PMI	57.2
06/23	Eurogunea	Euroguneko Markit fabrikazioaren PMIa	56.7
06/23	Eurogunea	Markit Eurogunea Zerbitzuak PMI	56.2
06/23	Eurogunea	Markit PMI Composite Eurogunea	56.6
06/23	Estatu Batuak	Markit AEB fabrikazioa PMI	53.0
06/23	Estatu Batuak	Markit AEB Zerbitzuak PMI	--
06/23	Estatu Batuak	Markit PMI Composite AEB	--
06/23	Estatu Batuak	Etxebizitza berrien salmenta	600k
06/23	Estatu Batuak	Hileko etxebizitza berrien salmenta	% 5.5

JRTSAK:

iera negatiboak munduko burtsa nagusietan. AEBetako rtsak, aldiz, itxiera positiboa izan zuen, Nasdaq-ek izan ik, kalte egin baitzion sektore teknologikoaren portaera kasak. Astea gertaera politiko eta instituzionalez josita an zen. Europan, esate baterako, Italiako udal-uteskundeen lehen itzuliko emaitzak ezagutu genituen. *movimento 5 Stelle* (5 izarren mugimendua) alderdiak lpe latza jaso zuen, Italiako hiri nagusietatik kanpo ratu baitzen. Bestalde, Erresuma Batuan, Ingalaterrako nkuak bilera egin zuen. Erakundeak ez zuen bere diru-litika aldatu, baina Batzordeko kideen artean sadostasun handiak daudela jakin genuen; izan ere, rtzi kideetatik hiruk interes-tasa ofiziala igotzearen alde ertu baitziren. AEBetan, Erreserba Federalak interes-sak 25 op igo zituen, aurreikusita zegoen moduan. inera, tasen aurreikuspenei eutsi zien; hau da, beste ьера bat aurten eta hiru 2018 eta 2019rako. Halaber, lantzea normalizatzeko planari buruzko xehetasunak agutarazi zituen: aurten jarriko du martxan eta osketa-programa zaharren eraginpean erositako nuen mugaeguneratzeak berrinbertitzeari utziko dio. ump albiste izan zen berriz ere, bere aurkako demanda t jarri baitute atzerriko gobernuen funtsak bere npainien bitartez jasotzea leporatuta; konstituzioaren rkako jardunbidea.

ERRENTA FINKOAK:

Ebetan, Fed-en gorako joera ez zen nahikoa izan plaren datu eskasa arintzeko, eta hamar urterako tasa 5 0,15 jaitsi zen, % 2,15eraino. Europan, Fed-ek tasak igo zuen eta Ingalaterrako Bankuan interes-tasak igotzearen dekoak ugaritu egin ziren, nolabaiteko hegazkortasuna arriz. Nolanahi ere, Alemaniako bonuak ia aldaketarik ibe amaitu zuen astea. Espainiako bonuaren rentagarritasunak antzeko portaera izan zuen, eta risku-prima bere horretan mantendu zen. Kredituak, estalde, hobera egin zuen eta bere diferentzialak estutu en.

BISAK/LEHENGAIAK:

ahiz eta Fed-en joera murriztaileagoa (*hawkish*) izan, olarra % 0,08 igo zen euroaren aldean. Liberaren balioa 0,43 igo zen euroaren aldean, KPlaren datu irrigarriaren eta Ingalaterrako Bankuan interes-tasak otzearen aldekoen ugaritzearen ondorioz. ehengaietan, petrolioaren prezioak % 1,89 egin zuen shera. Espero zena baino inbentarioen datu handiago itek AEBetan eta ekoizpenaren igoerari aurre egiteko EEren politikaren ahalmenari buruzko zalantzek agina izan zuten kotizazioan. Urreak, azkenik, akarmena galdu eta % 1,02 egin zuen atzera.

INDIZEAK	PREZIOA	% Aldaketa % Astean	Ald. 2017
MSCI WORLD (Local)	1.471,05	-0,10	7,83
IBEX 35	10.759,40	-1,99	15,05
DJ EURO STOXX 50	3.543,88	-1,18	7,70
DJ STOXX 50	3.192,89	-0,54	6,06
FTSE	7.463,54	-0,85	4,49
S&P 500	2.433,15	0,06	8,68
Dow Jones	21.384,28	0,53	8,21
NASDAQ	6.151,76	-0,90	14,28
NIKKEI 225	19.943,26	-0,35	4,34
MSCI GORAKORRAK (Lo)	53.477,17	-1,20	12,23
MEXBOL	49.221,03	0,28	7,84
BOVESPA	61.626,41	-0,94	2,32
SHANGHAI	3.270,77	-1,12	0,65
Errusia Rts Mosku	994,38	-4,52	-13,71

Tipos Gobiernos	Nivel	Variación Semanal	Var 2017
ALEMANIA 2 AÑOS	-0,66	0,07	0,11
ESPAÑA 2 AÑOS	-0,27	0,03	0,01
EE.UU. 2 AÑOS	1,32	-0,02	0,13
ALEMANIA 10 AÑOS	0,28	0,01	0,07
ESPAÑA 10 AÑOS	1,46	0,01	0,07
EE.UU. 10 AÑOS	2,15	-0,05	-0,29
ALEMANIA 30 AÑOS	1,11	-0,02	0,17
ESPAÑA 30 AÑOS	2,77	-0,02	0,15
EE.UU. 30 AÑOS	2,78	-0,08	-0,29
Spread de credito (pb)			
MARKIT ITRX EUROPE 06/22	57,38	-1,76	-14,66
MARKIT ITRX EUR XOVER 06/22	238,23	-3,10	-50,47

Dibisak	Maila	% Aldaketa % Astean	Ald. % 2017
Dolarra / Euroa	1,12	-0,08	6,09
Yena / Euroa	124,00	0,23	0,78
Libera / Euroa	0,88	-0,43	2,42
Lehengaiak	Maila	% Aldaketa % Astean	% Ald
Petrolio (Brendt)	46,65	-1,89	-15,81
Urrea	1.253,65	-1,02	8,80

INTERES-TASA → NEGATIBO SAMARRA

- **EBZ:** Azken bileran, hazkunde ekonomikoaren arriskuei buruzko joera aldatu zuen, eta orekatutzat o zituen. Izan ere, hazkundearen aurreikuspenak gorantz berrikusi zituen, eta interes-tasa baxuagoen aukera baztertu zuen. Inflazioaren inguruko tonu positiboa gorabehera, beherantz berrikusi zituen aurreikuspenak eta bere erosketa-programa abendura arte edo haratago (beharrezkoa balitz) ndarrean jarraituko duela erabaki zuen. Horiek horrela, Draghik etorkizuneko mugimenduak gaur egungo pizgarriak kentzeko bidetik joango direlako zantzuak eman zituen, betiere Europako hazkundearen bilakaerak, inflazioak eta politika-arriskuak horretarako aukera ematen badute.
- **FED:** Interes-tasak pixkanaka gogortzen ari diren testuingurua bizi dugu. Nolanahi ere, ziurgabetasun handiko prozesua izango da, Amerikako eta munduko ekonomiaren eta Trumpek azkenean aplikatzen duen zerga-politikaren bilakaeraren arabera.
- **Epe luzeko interes-tasak:** Epe ertainean, tasek normalizazio-prozesuari eutsiko diote, baina erritmo apalagoan eta maila apalagoetaraino.

ZOR PERIFERIKOA → POSITIBO SAMARRA → BALIO ERLATIBOA

- Espero dugunaren moduko interes-tasen normalizazio prozesu batean, zor periferikoak balio erlatiboa dauka zor alemaniarren aldean. Nolanahi ere, herrialde batzuen eta besteen datu makroekonomiko nagusien bilakaerak, prozesu politikoen bilakaerarekin batera, portaera desberdinak eragin ditzake herrialdeen artean. Edonola ere, EBZren eta aktiboak erosteko bere programaren aguntzarekin, herrialdeen arteko dikotomia hori arintzeko aukerak daude.

KREDITUA → NEUTRALA → MUGAGABEKO POTENTZIALA

- Tasa baxuen testuinguruak eta EBZk zenbait bonu korporatibo erosi izanak dagoeneko nahiko joitutan dauden kredituaren diferentzietan murrizketa handia eragin du.

BURTSAK → POSITIBO SAMARRA → ERRENTAGARRITASUN-MOTORRA, BAINA HEGAZKORTASUNAREKIN

- Tasa baxuen testuingurua, indize nagusiek eskaintzen duten dibidenduko errentagarritasunaren aldean, eta inflazioaren gorakada mailakatua, etekinen hazkundearen joeraren aldaketa, hobekuntza makroekonomikoa eta zerga-arloko neurri hedagarriak aplikatzeko aukerak burtsentzako lagungarri izan dira.
- Ikuspegi positiboa izaten jarraitzen dugu, batez ere Europako merkatuari dagokionean, balorazio erakargarria duelako, eta behin ziurgabetasuna murriztuta, baita agerikotasun handiagoa ere.
- Gorakorren kasuan, azken hiletan, haien oinarrizkoak hobetu egin dira, lehengaien prezioak egonkortu direlako eta ingurune orokorrak lagundu duelako. Hala ere, egoera honek okerrera egin dezake, Trumpek bere proposamen protekzionistetakoren bat gauzatzeko aukera badu.

DIBISEN MERKATUA (DOLARRA) → NEGATIBO SAMARRA

- Dolarra / Euroa: Dolarraren balio-igoera handitzeko aukerak urriagoak dira orain, Europako arrisku politikoa desagertu delako, makro datu berriak Europaren aldekoak direlako eta EBZk bertan behera jtzzi dezakeelako bere diru-politika ultra hedagarria.



Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.